

AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO

El grupo municipal UdalBerri-Bilbao en Común presenta al próximo Pleno Ordinario esta proposición para su debate y aprobación relativa a la “prevención y protección de las mujeres mayores ante todas las formas de violencias machistas”.

PROPUESTA

El Pleno del Ayuntamiento de Bilbao insta al Equipo de Gobierno a:

1. Implementar medidas para la prevención y protección de las mujeres mayores ante todas las formas de violencias machistas, mediante el refuerzo de las medidas ya existentes y la puesta en marcha de otras nuevas.
2. Visibilizar y sensibilizar a la sociedad sobre la existencia de las diferentes formas de violencias machistas que se ejerce hacia las mujeres mayores, con el objetivo de desnaturalizar y concienciar sobre un fenómeno que todavía permanece en gran medida oculto.
3. Organizar durante el próximo año 2019 jornadas especializadas de reflexión, intercambio y formación sobre violencias machistas y mujeres mayores, orientadas fundamentalmente a brindar herramientas específicas a las y los profesionales de los sistemas de prevención, atención y protección a mujeres víctimas de violencias machistas, de manera que se puedan ofrecer respuestas ajustadas a sus intereses y necesidades.
4. Dar a conocer y reconocer la contribución histórica y actual de las mujeres mayores al desarrollo de la sociedad vasca y a la conquista de derechos, a través de al menos una campaña durante el año 2019.

JUSTIFICACIÓN

El 25 de noviembre se celebra todos los años el Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres. Aunque el llamado se hace de forma general e inclusiva, al mismo tiempo es una realidad que el colectivo de mujeres mayores está invisibilizado. En Euskadi, según datos oficiales, del total de mujeres asesinadas entre los años 2002-2017, el 30,95 % tenía más de 50 años.

Sin embargo, las mujeres mayores son las que menos denuncian. Así, según datos del Departamento de Seguridad, las mujeres mayores, en 2017, representan sólo un 10% de las denuncias que se registraron por violencia machista ejercida por su pareja o expareja. Por ello, resulta evidente que las mujeres mayores se encuentran en situación de mayor vulnerabilidad para llevar adelante proyectos de vida libres de todo tipo de violencias. Ser mujer y ser mayor son factores que en nuestras sociedades generan condiciones específicas para sufrir múltiples formas de maltrato y violencias machistas, diferenciadas de las que se ejerce hacia niñas, mujeres jóvenes o adultas.

Además, las mujeres mayores tienen vidas cotidianas que son el resultado de acumular todas las desigualdades por motivos de género que han experimentado a lo largo de toda su vida. Décadas de roles de género impuestos, años de trabajo invisible y no reconocido en los hogares, la división sexual del trabajo, la precariedad del empleo con un porcentaje elevado de jornadas reducidas y contratos a tiempo parcial en sectores generalmente peor pagados, así como la precariedad del sector de los cuidados, fuertemente feminizado. Y en algunos casos son historias de vida y presentes marcados por las violencias machistas en el ámbito doméstico.

Es necesario redoblar esfuerzos para visibilizar y sensibilizar sobre esta realidad y sus características particulares. Es también importante poner en valor y promover el reconocimiento a la contribución que estas mujeres han hecho y continúan haciendo al desarrollo de la sociedad vasca.

Además, en los sistemas de prevención, atención y protección a las mujeres víctimas de violencias machistas, se debe continuar trabajando para incorporar las necesidades específicas que pueden surgir de ser mujeres y ser mayores, con el objetivo de dar respuestas adecuadas y adaptadas a sus realidades vitales.

Bilbao, a 13 de noviembre de 2018.



Fdo. Carmen Muñoz López

Concejala Udalberri - Bilbao en Común

BILBOKO UDALAREN OSOKO BILKURARI

Datorren Ohiko Osoko Bilkuran UdalBerri-Bilbao en Común udal-taldeak "adineko emakumeak indarkeria matxisten modu guztietatik babesteari eta horri lotutako prebentzioari" buruzko proposamen hau aurkeztuko du, eztabaidatu eta onartzeko.

PROPOSAMENA

Bilboko Udal Osoko Bilkurak honako hau eskatzen dio Gobernu Taldeari:

1. Adineko emakume guztiak indarkeria matxisten modu guztietatik babesteko eta horri lotutako prebentzioa sustatzeko neurriak inplementatzea, lehendik dauden neurriak sendotuz eta beste neurri berri batzuk abian jarritz.
2. Adineko emakumeei eragiten zaizkien indarkeria matxisten modu guztiak ikusaraztea eta gizartea haien inguruan sentsibilizatzea, neurri handi batean oraindik ezkutuan jarraitzen duen fenomeno hori desnaturalizatzeke eta horren inguruan kontzientziatzeke.
3. 2019. urtean indarkeria matxista eta adineko emakumeei buruzko gogoetarako, elkartrukerako eta prestakuntzarako jardunaldi espezializatuak antolatzea, bereziki tresna espezifiko jakin batzuk jartzeko indarkeria matxisten biktima diren emakumeen babes, arreta eta prebentziorako sistemetan diharduten profesionalen eskura, haien interes eta premietara egokitutako erantzunak eskaintzeko aukera izan dezaten.
4. Adineko emakumeek euskal gizartearen garapenaren eta eskubideen konkistaren alde betidanik egin duten ekarpena eta gaur egun egiten dutena ezagutzera ematea eta aitortzea, 2019an gutxienez kanpaina bat antolatuz.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da, urtero. Deialdi orokorra eta inklusiboa bada ere, ukazina da adineko emakumeen kolektiboa ikusezin bihurtuta dagoela. Datu ofizialen arabera, 2002-2017 urteetan Euskadin eraildako emakume guztien % 30,95 berrogeita hamar urtetik gorakoak ziren.

Alabaina, adineko emakumeak dira salaketa gutxien jartzen dituztenak. Hala, Segurtasun Sailaren datuen arabera, 2017an, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria matxistarengatik erregistratutako salaketen % 10 baino ez ziren adineko emakumeen eskutik iritsi. Horregatik, begi-bistakoa da adineko emakumeak egoera ahulagoan daudela bititza-proiektuak mota guztietako indarkerietatik aske aurrera eramateko. Emakumea eta adinekoa izateak baldintza espezifiko batzuk sortzen ditu gure gizartean, eta horrenbestez adineko emakumeek aukera gehiago daukate tratu


txar eta indarkeria matxisten modu ugari sufritzeko, neska, emakume gazte eta helduek sufritzen duten indarkeriatik aparte.

Gainera, adineko emakumeek generoagatiko hainbat desparekotasun metatu dituzte bizitza osoan, eta metaketa horren emaitza nabari da haien eguneroko bizitzan. Hamarkadatan genero-rolen inposaketa pairatzen; urtetan etxean egindako lana ikusezin bihurtuta, merezi duten aitortza jaso gabe; lanaren sexuaren araberako banaketa; enpleguaren prekarietatea, lanaldi murriztuak eta lanaldi partzialeko kontratuak neurri handi batean, oro har okerrago ordainduta dauden sektoreetan; eta oso feminizatuta dagoen zainketen sektorearen prekarietatea. Eta hori gutxi balitz, kasu batzuetan, etxeko eremuko indarkeria matxistek markatutako bizitzak eta orainak dira.

Ahaleginak areagotu behar ditugu, errealitate hori eta haren ezaugarri partikularrak ikusarazteko eta haien inguruan sentsibilizatzeko. Garrantzitsua da, halaber, emakume horiek euskal gizartearen garapenaren alde egin duten eta oraindik ere egiten duten ekarpena balioan jartzea eta haren aitortza sustatzea.

Gainera, lanean jarraitu behar dugu emakumea eta adinekoa izatearen haritik sor daitezkeen premia espezifikoak indarkeria matxisten biktima diren prebentzio, arreta eta babeserako sistemetan txertatzeko, haien bizi-errealitateetara egokitutako erantzunak emateko helburuarekin.

Bilbo, 2018ko azaroaren 13a.



Sin.: Carmen Muñoz López

Udalberri-Bilbao en Común udal-taldeko zinegotzia